

KONTROL MOZIOA

2016ko hiriburutzaren egitasmoen erabilera alderdikoiak direla-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko ekainaren 20an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 28rako iragarri zen San Telmo Museoan errefuxiatuei buruzko jardunaldi bat: *“Una nueva vida a 25 días: miradas sobre la crisis de refugiados sirios”*.

Jardunaldiaren antolatzaileei dagokienez, informazio anitza eta kontraesankorra hedatu zen (Donostia Kultura, San Telmo Museoa edo/eta 2016ko Hiriburutza) euskarri idatzi eta digital desberdinen arabera:

- Astero Udalak antolatzen duen agendaren arabera, antolatzaileak Donostia Kultura eta San Telmo Museoa dira. Hala ere, Donostia Kulturak argitaratzen duen agendan ez dago ekitaldi hau.
- Museoaren web orrian eskura zitekeen kartelaren arabera, antolatzaileak San Telmo Museoa eta 2016ko Hiriburutza ziren eta, hedabide idatzietan eta digitaletan, antolaketa 2016ko Hiriburutzari esleitzen zitzaion

Beraz, antolatzaile publiko zehatza argi ez egon arren, aipatutakoen artean Udala da arduradun nagusietako bat.

Halaber, egun berean, Gipuzkoako Kulturako foru diputatuak iragarri zuenaren arabera, jardunaldia Gipuzkoako Gazteri Sozialistek antolatu zuten, eta ondorengo eguneko prentsak espazio berezia eman zion, hain zuzen ere, PSOEko kideen presentziari. Izan ere, jardunaldiak bi parte zituen: lehena, Siriako errefuxiatuen krisiari buruzko ikuspegiak lau ekintzaileren partetik; bigarrena, Siriako errefuxiatuen egoeraren aurrean erakunde publikoek duten zereginen ingurukoa. Jardunaldiaren bigarren zati honetan aniztasun falta nabaria izan zen, alor instituzionalaz jardun behar zuten hiru hizlariak PSOEko kideak baitziren: Eider Gardiazabal eurodiputatu, Teresa Laespada Bizkaiko Enplegu, Barne-Hartze eta Berdintasun foru diputatu eta Denis Itxaso Gipuzkoako Kultura foru diputatu. Moderatzaile lanetan, Ander Iturri, 2015eko udal hauteskundeetan Donostiako PSOEren zerrendakide izandakoa. Beste inongo alderdi politikok ez zuen ordezkartzarik izan ekitaldian.

Udala bertako arduradun nagusietakoa zelakoan, 2016 Hiriburutzako eta Kulturako zinegotzi ordezkariari interpelazioa aurkeztu genion eta 2016ko ekainaren 20an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertu zen. Eta bertatik ateratako informazioak, antolaketaren inguruko anabasa argitu baino, elementu kezkarri gehiago gehitu zizkion. Batetik, ziurtatu zitzaigun jarduera Udaleko San Telmo Museora 2016ko Hiriburutzaren eskutik ailegatu zela, “Energia Olatuak” programaren baitakoa izanik (ondorioz, antolatzaileek museoko aretoa debalde eta bertako zerbitzu guztiak eskura izango zituzten, Hiriburutzatik 2.016,00 € jasotzeaz gain). Bestetik, PSOEko gazteriak antolatu zuela jarduera egin ondoren jakin zutela, eta, harrez gero inongo neuririk ez dela hartu tamainako manipulazioaren aurrean.

Horiek horrela, honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du behean sinatzen duen zinegotziak:

-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezko neurriak har ditzan, inongo alderdik, edo inongo alderdiren gazte erakundeak, ez dezala erabili 2016ko Hiriburutzaren egitasmoa, bere jarduera propioen pantaila moduan.

Donostian, 2016ko ekainaren 24an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia